



## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren helburua edo xedea aurrera eramateko ondorengo baliabideak erabiliko ditugu.

**Baliabide fisikoei** dagokionez, lokal moduko bat daukagu taldeko kide guztiak elkartu eta proiektua aurrera eramateko. Horretaz gain, bost ordenagailu eta mugikor dauzkagu, izan ere, lan gehiena digitalki egingo dugu, baita bitxien diseinua ere.

**Baliabide intelektualak** ere baditugu: Aiarak diseinu berri eta originalak gauzatzeko trebetasuna du, Jonek negoziatzeko ahalmena, Garazik sare sozialak antolatu eta aurrera eramateko gaitasuna, Iratik webgunea sortzeko trebetasuna eta Nereak salmentetarako eta antolaketarako abileziak.

Azkenik, **finantza-baliabideei** dagokionez, bakoitzaren aurrezkietaz baliatuko gara. Horretaz aparte, bankuari mailegu bat eskatuko diogu gure helburua gauzatu ahal izateko.

